

120. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako udalek haur, nerabe eta gazteentzako planak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak (D lerroa)

Nori zuzendua: deialdian adierazitako baldintzak betetzen dituzten Gipuzkoako udalak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako udalek haur, nerabe eta gazteentzako planak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia \(D lerroa\)](#)

Eremuak: Haurrak, nerabeak eta gazteria

Zenbatekoa: 460.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/23

Laburpena

Deialdi honen xedea Gipuzkoako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan eta **Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearen esparruan, Gaztematikan, haur, nerabe eta gazteentzako planak, programak, jarduerak eta zerbitzuak** martxan jartzeko udalentzako dirulaguntzen emakida arautzea da.

Ondoren aipatzen diren **baldintza** guztiak betetzen dituzten Gipuzkoako udal guztiek izango dute dirulaguntza hauek lortzeko aukera:

- Gipuzkoako **Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari**, atxikita egotea edo atxikimendu agiria aurkeztea eskaerarekin batera..
- **Arduradun teknikoa eta/edo politikoa** izatea, **Haurrak eta/edo Gazteak Sustatzeko** arloan berariazko eskumen eta/edo eskuordetza duena.
- Behar diren lan bilerak egitea **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritza Nagusiaren** aholkularitza zerbitzuarekin.
- Urtean zehar egingo diren hiru **foro teknikoetan** parte hartzea, ordezkari baten bitartez..
- **«Gaztesare» intranetean** jasotako bere udalerriri buruzko datuak sartzea eta eguneratuta edukitzea
- Beren politiken **garapenean haur, nerabe eta gazteen parte hartze egonkorra** txertatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen **aukera berdintasuna** bermatzea; horretarako, zeharka landuko dira

generoen arteko berdintasuna, euskararen sustapena eta gizarte inklusioa..

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Aurkezten diren laguntza eskaerak modalitate hauetako baten barruan egon beharko dira:

- a) Bakarrik edo haur eta/edo gazteen sustapenerako beste unitate batzuekin lankidetzan gidatutako eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat **estrategikoak eta erreferentziazkoak** diren proiektuak egitea, haien garrantzia, berezitasuna, dimentsioa, berritasuna edo erreplikagarritasuna (proiektu bat udalerri batean garatu eta sistematizatu ondoren, hura etorkizunean beste udalerri batzuetan ezarri ahal izatea) aintzat hartuta
- b) **Haur eta gazteen sustapenerako programa orokorrak kudeatu edo garatzeko hainbat urtetarako edo urtez urteko planak egitea**, Gaztematikaren ildo estrategikoak toki mailan ezartzeko..
 - b.1) Udalaren Haur eta Gazteen Sustapen arloa garatzeko **hiru urteko plan bat egitea**, sustapeneko jarduketak eta zerbitzuak diseinatzuz eta martxan jarriz.
 - b.2) Udalaren Haur eta Gazteen Sustapen arloa garatzeko urtez urteko **kudeaketa plan bat** egitea, helburu hauek izango dituenak:
 - Haurrek, nerabeek eta gazteek udalerrian parte hartzeko egiturak sortzea, zerbitzuetatik abiatuta.
 - Haurtxokoak eta gaztelekuak hobetzeko proiektuak garatzea, Gaztematikako haur eta gazteen sustapen zerbitzuen estandar teknikoetara egokitzeko prozesuak martxan jarriz.
 - Udaleko beste arlo batzuekin lan koordinatu eta zeharkakoa egitea ahalbidetuko duten jarduketak garatzea.
 - Udalerrian gazteentzako zerbitzu bat ezartzeko proposamen bat zehazten lagunduko duten jarduketak garatzea.
 - Sustapen arloko antolaketako, plangintzako eta kudeaketako egiturak hobetzea.
 - b.3) Sustapen zerbitzurik ez duten 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan haur, nerabe eta gazteen sustapenerako **programa orokor** bat egitea, programa hobetze aldera talde aholkularitzako bileretan parte hartzeko konpromisoaz.